

# O!

Testua eta irudiak: **JOSSE GOFFIN**

Kartoi gogorrean egina. 22x26,7 cm. 52 or. (zabaltzekoak). 16 €

-BOLONIAKO HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN NAZIOARTEKO AZOKAREN SARI GRAFIKOA 1993  
-IRAKURKETA PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)

**O!** (euskara)

ISBN 978-84-9172-241-0. Album irudidunak. Gaur egungo klasikoak.

**¡Oh!** (gaztelania)

ISBN 978-84-1343-103-1. Álbum ilustrado. Clásicos contemporáneos.

**Oh!** (galego)

ISBN 978-84-1343-102-4. Álbum ilustrado. Tras os montes.

**Oh!** (katalana)

ISBN 978-84-18558-22-1. Àlbum iIlustrat. Clàssics contemporanis.

**Oh!** (portugesa)

ISBN 978-989-749-150-4. Álbum ilustrado. Clássicos contemporâneos.

**Oh!** (italiera)


ISBN 978-84-1343-079-9. Albo illustrato. Classici moderni.

«O!» testurik liburu bat da, Haur eta Gazte Literaturako adituek erreferentzia-lantzat hartua. Esanahi bikoitzarekin jostatzen da, igarkizun bisualekin, eta, Magrittek bezala, argi erakusten digu pipa bat ez dela beti pipa bat”. Ez da sarrera, korapiloa eta amaiera dituen istorio bat. Haren orrialdeek irudi independenteak erakusten dizkigute, nahiz eta baduten elkarren arteko segida bat, kate modura egina.

Orrialdeak zabaldu egiten dira, eta, horrela, lehenbiziko orrialdeak irudi bat osatzen du bigarren orrialdearekin; baina bigarrena irekitzean, beste irudi bat sortzen da, desberdina. Horrela, ikusten denaren eta ezkutuan dagoenaren arteko jolas bat sortzen da; gauza bat zerbait dela iruditu baina beste gauza bat bihurtzen da. Irudimenez beteriko planteamendu harrigarri honi irudi bilduma bat gehitzen zaio: irudiak lauak dira, deskribatzaileak, umeek aise ulertzeko modukoak.

Adin guztietarako liburua da, baina bereziki erakargarria da oraindik ere irakurtzen ez dakiten umeentzat eta juxututik hasiak direnentzat, narrazio ariketa librea egin baitezakegu txikiak orrialde bakoitzaren atzean zer ezkututzen den asmatzen saiatzen diren bitartean.

Zoragarria da emaitza: haurrek irudiak identifikatzen dituzte, harritzen dira, txunditurik gelditzen dira ezkutuan dagoena ikustean (horregatik du halako izenburua), narrazioaren irakurketa bisualaren irudi-katea ikasten dute, eta, bidenabar, irudimena lantzen dute.



- **Gala:** testurik gabeko liburua, irudien esanahiarekin jostatzen dena.
- **Adin egokia:** oraindik irakurtzen ez duten umeak eta irakurle hasi berriak.
- **Nabamentzekoak:** zabaltzen diren orrialdeak, irudi errazak, eraldatzen diren irudiak; irakurketaren noranzko bikoitza; egokia irudimena pizteko eta irudiak identifikatzeko; hezkuntza bisual eta plastikoa.

## Josse Goffin

(Brusela, 1938)

Diseinu Grafikoa eta Komunikazio Bisuala ikasi zituen. Bere lan-ibilbidearen hasieran, publizitateko eta agentzien eta argitaletxeen zuzendari aritu zen. Bere unibertso grafikoan, umoreak eginkizun poetiko garrantzitsua du. Lan-katalogoan, kulturaren eta merkataritzaren arloetako kartelak ditu, baita aldizkarien azalak eta nazioarteko publizitate kanpainak ere besteak beste. Umeentzako hainbat libururen irudiak ere egin izan ditu. Mundu osoko publizitate eta diseinu agentziek estimu handian dute Josse Goffinen lana, batez ere haren freskotasunagatik eta originaltasunagatik. Hori dela-eta, Europako, Estatu Batuetako eta Japoniako erakusketa askotarako aukeratua izan da.

